


# Getxo >MEETING<



Getxo MEETING 10/25:  
**Mikrohitza**ldien txanda:  
**Zure produktua/zerbitzua/enpresa aurkez ezazu 6 minutu eta 30 segundotan.**

Egiten duzuna azaltzeko txanda heltzen zaizunean: **Urriaren 25eko Getxo MEETING** ekimenetik ateratako ondorioak

Nork ez du noizbait zirrara ezti-mingotsa izan bere enpresa aurkezterakoan? Zure buruari galdetzen diozu: Esan dudana ulertu al da? Garrantzirik gabeko xehetasunetan galdu ote naiz, niri soilik interesatzen zaizkidan kontuak azaltzen?

Zirrara hori ekiditeko –edo, gutxienez, murrizteko– asmoz, ahozko aurkezpen eraginkorrak lantzerazuzendu genuen saio hori –zizka-mizkak barne–. Hau da ikasi genuena:

- Argitasunak nagusi izan behar du. Horretarako, saihestu teknizismo gehiegi aipatzea. Ondo dago zehaztasunez hitz egitea, profesionala zarela erakustea, baina hitz tekniko gehiegi erabiliz gero entzuleak aldentuko dituzu.
- Funtsezkoa da segurtasuna transmititzea; horretarako, utzi autokritikak alde batera.
- Hizlariei begiratzea eta “guztiei begirada bat botatzea” garrantzitsua da.
- Egokitutako hitzaldi bat eman, entzulea inplikatzeko duena. Adibidez: galderak egin, solaskidean oinarritutako adibideak eman...
- Aspertzen ari bazara, aspergarria izaten ari zarenaren seinale. Horregatik da garrantzitsua transmititzea, dibertitzea eta erritmo bizia izatea.

Hitzaldia egituratzerako orduan gidoiaren zirriborro bat egitea komeni da. Ez duzu esango duzuna zehatz-mehatz idatzi behar, puntu garrantzitsuenak idatzi, ahaztu ez ditzazun. Gainera, denbora kudeatzeko modu bat da. Esaterako, zure aurkezpena 6 minutu eta 30 segundokoa bada, gutxienez, sarrera egiteko minutu bat eta ondorioetarako beste bat beharko dituzu, eta 4'30'' geldituko zaizkizu funtsezko ideiak garatzeko.

Hona hemen egituraren eredu bat:

1. Arreta ematen duen sarrera bat.
2. Solaskideak ezagutu behar dituen hiru funtsezko ideia. Ez kontatu zuk nahi duzuna, baizik eta entzuleak jakin behar duena.
3. Itxiera zirraragarri bat, entzuleen arreta erakartzen duena.

Bertaratu zirenei bezala, zure enpresak zer egiten duen eta zertarako egiten duen azaltzeko beste aukera bat izateko gogoia piztu izana espero dugu.

-----

Getxo MEETING bi ostegunik behin egiten da 14:30etik 16:30era. Saio dinamizatuak dira, non aholkuak partekatu eta zure enpresarentzat interesgarriak izan daitezkeen kontaktuak egin ditzakezun. Bazkaldu gabe etor zaitezke, beti dagoelako mokadutxoren bat jateko aukera. Doakoa da, eta izena eman beharra dago aldezturik, hona hemen horretarako bideak: 944 660 140 eta [getxopro@getxo.eus](mailto:getxopro@getxo.eus)